

## **EZKIO-ITSASO / Herriko liburutegia martxan dago berriro udako oporren ostean**

DV. Abuztuaren 17an itxi zuten Ezkio-Itsasoko liburutegia udako opor atsedenaldea hartzeko eta aste batzuk igaro ondoren astelehenean, irailak 7, zabaldu zituzten berriro ateak, momentu honetan dena martxan dagoelarik.

Jakina da liburutegiaren kokapena aspaldi aldatu zela, momentu honetan herriko kultur etxean egiten ari diren obregatik, udaletxeko goiko solairuan kokatuz. Honetarako lokala txukundu eta atariko paretak margotu zituzten orain dela gutxi, besteak beste.

Herriko liburutegiak zerbitzu desberdinak eskaintzen dizkie herritarrei. Hasteko, liburutegien sarean dago, eta hau horrela izanik, sare honetan dauden beste liburutegietan ere liburuak maileguan hartzeko aukera dute bazkideek, Legazpikoan adibidez, beti beste liburutegi horretako arauak errespetatuz.

Bazkide egiteko txartela dohainik da eta adin guztietako bizilagunek dute hau egiteko aukera: bertara joan eta NAN-aren zenakia emanaz gero karneta lortzen da. Bestalde, eta ikasleen kasuan, ikastetxeetan eskatutako irakurtzeko libururen bat ez badago, honen ale bat gutxienez eskatzen dute beti, zerbitzua handituz. Honetaz gain fotokopiak, pen drive-etatik lanak ateratzeko aukera...

### **Ordutegia**

Ezkio-Itsasoko liburutegiak arratsaldez irekitzen ditu ateak, larunbatetan izan ezik. Hala, astelehenean arratsaldeko 17:30etik 19:30era dago zabalik; asteazkenetatik ortiraletara, berriz, arratsaldeko 18:00etatik 20:00ak arte; eta larunbatetan goizez irekitzen ditu ateak, 10:00etatik 13:00k arte.